



GURE ARDOAK – II

EUSKAL EDARIEN ELKARGUNEA

EUSKADIKO EDARI ARETOA

BASQUE BREWERY ROOM

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak gonbidatzen zaitu datorren **urtarrilaren 26an** Bilboko Euskalduna Jauregian egingo den edarien sektoreko profesionalentzako ekitaldi eksklusiboan parte hartzera.

Zer da GURE ARDOAK?

Show-room honek euskal edarien kategoria guztietako upategiak eta enpresak bilduko ditu (Arabako Errioxako ardoa, Arabako, Bizkaiko eta Getariako txakolinak, Basque Beer garagardoak, Euskal Sagardoa, likoreak eta beste euskal edari batzuk), publiko profesionalaren artean edarien euskal sektore osoaren aniztasuna eta bikaintasuna ezagutarazteko.

BIGARREN EDIZIO honetan

Berrikuntza hauek sartu ditugu upategiak eta profesionalak erakartzeko:

- Kanada, Mexiko, Gales, Suitza eta beste herrialde batzuetako inportatzaileen presentzia
- Euskadin ezarrita dauden retailer nazionalen erosleen bisita
- Banatzaileen presentzia, Madrilgo eta Bartzelonako banatzaileetan bereziki fokua jarritz
- Hosteleritza elkartuko erosleei gonbidapena

Honetaz gain, jarduera paraleloak egingo dira Euskadiko ostalaritza-elkarteekin batera, bazkideak erakartzeko helburuarekin

Ondorengo egunetan UPATEGIAN BISITAK HARTZEKO aukera

Erakusketa ondorengo bi egunetan, inportatzaile eta banatzaile nazionalak upategiak bisitatzeko aukera eskainiko zaie.

Bisita horiek jaso nahi dituzten upategiek izena emateko orduan adierazi beharko dute, eta HAZIk ezarritako ordu eta baldintzetan jasotzeko konpromisoa hartu beharko dute.



INSKRIPZIOA

Aretoaren data: urtarrilak 26

Tokia: Euskalduna Jauregia (Bilbo)

Norentzat: Edarien sektoreko publiko profesionalarentzat

Ordua: 11:00etatik 19:00etara.

Kostua: 200 euro + BEZ = 242 euro

Izena emateko azken eguna: **2025eko abenduak 15**

Informazio gehiago:

Informazio teknikoa: Mikel Arrillaga (946 030 330)

marrillaga@hazi.eus

Informazio Administratiboa: Naiara Alzaga (946 030 330)

nalzaga@hazi.eus

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Show room honetan, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta Eusko Jaurlaritzako Elikagai Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleek baino ez dute parte hartuko.

SHOW-ROOM-AREN AURRETIK ETA BITARTEAN

Enpresaren ordezkariak bertaratzeke konpromisoa hartzea eta kuota ordaintzea. Ezin izango da ekintza honetan baja eman aretoan onartua izan dela jakinarazi ondoren.

Ezinbesteko kasuetan bakarrik, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.

Bere espazioa egun osoan zehar zaintzea, eta Show roomak irauten duen orduetan egotea.

Aretoaren amaieran produktu guztiak behar bezala jasotzea eta espazioko elementuak jaso ziren baldintza berberetan ematea.



SHOW ROOM-AREN ONDOREN

Bete eta entregatu beharko duten ebaluazio-inkesta egitea, antolakundearen jarraibideen arabera.

INSKRIPZIOA

Aretoak zuzenean esleituko dira aretoaren antolakuntzatik (Eusko Jaurlaritza - Hazi Fundazioa), eta inskripzio osoaren hurrenkerari jarraituko zaio. Ezinbestekoa izango da ordainagiria bidaltzea, eta zure enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten dokumentuak bidaltzea, formularioaren bidez izena ematearekin batera. Lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemaren Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

Zure eskaera osoa izan dadin eta kontuan har dadin:

➤ **Izena emateko formularioa bete:**

Formularioan eskatzen den informaziotik zehatz-mehatz transkribatuko dira komunikazio guztietarako datuak, bai eta egiten diren sustapen-elementuak ere.

➤ Ordainagiria bidali nalzaga@hazi.eus

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900, Laboral Kutxarena, HAZIren izenean.

Laboral Kutxaren BIC: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + SALON BEBIDAS EUSKALDUNA".

➤ Jardunbide Egokien Kodeari atxikitzea

HAZiako Finantza Sailak dagokion zenbatekoaren faktura bidaliko die, parte hartuko dutela baieztatu ondoren.

PARTE-HARTZE EREDUA

Gure Ardoak euskal edarien kategoria guztietako upategiak eta enpresak bilduko dituen Show Room bat da (Arabako Errioxako ardoa, Arabako, Bizkaiko eta Getariako txakolinak, Basque Beer garagardoak, Euskal Sagardoa, likoreak eta beste edari batzuk).

Erakusketa gun e osoa Gure Ardoak azokan parte hartzen duten euskal edarien azpisektoreetan banatuko da.

Enpresa parte-hartzaile bakoitzari espazio/erakusketa-eremu bat esleituko zaio, izen-emate osoaren ordenaren arabera.

Enpresa bakoitzak honako hauek izango ditu bere espazioan/erakusketa-eremuan:

- Mahai/mostradore 1
- Gehi 2 aulki
- Kubitera 1
- Kortxo-ateratzaileak
- Listuontzi 1
- 6 kopa, bisitari profesional bakoitzari kopa bat emango baitzaio Gure Ardoak Aretoko harreran.

SHOW ROOMEAN PARTE HARTZEN DUEN ENPRESA BAKOITZAREN SUSTAPEN-MATERIALA

Show Room Gure Ardoak delakoaren irudi globala izateko helburuarekin, zeina Hazi Fundazioak zuzenean landuko baitu, ez da onartuko parte hartzen duten enpresek roll up-a, kartelak... jartzea.

Enpresa parte-hartzaile bakoitzak bere mahaia izango du, egoki iritzitako liburuxkak edo txartelak bertan jartzeko.

ZAMALANAK

Materiala/produktua kargatzeko eta deskargatzeko ordutegia 08:00etatik 09:30era izango da 2026ko urtarrilaren 26an bertan.

Enpresa parte-hartzaileak ordu-tarte horretan deskargatu ahal izango du bere produktua.